

BIEn ematen diren ikasketetako azterketa daten artean talkarik gertatuz gero aplikatu beharreko arauak.

Talkarik sortzen bada titulazio bereko edo titulazio desberdinetako irakasgaietako ebaluazio proben daten artean, ikasleak proba baino hamabost egun lehenago eskatu beharko dio irakasleari data aldatzeko. Honako hauek hartuko dira kontuan:

1) Talka sortzen bada ikasketa ofizialetako (adibidez, gradu etako edo master ofizialetako) irakasgai baten eta ikasketa ez-ofizialetako (berezko masterretako, ikasketa osagarrietako, etengabeko prestakuntzako ikastaroetako) irakasgai baten artean, ikasketa ez-ofizialetako irakasgaiaren data aldatu beharko da.

2) Talka sortzen bada ikasketa ez-ofizialetako bi irakasgaien artean, ikasle gutxien matrikulatuta dauzkan irakasgaiaren data aldatu beharko da, eta bietan ikasle kopuru bera badago matrikulaturik, zozketa egingo da.

3) Talka sortzen bada ikasketa ofizialetako bi irakasgaien artean, honako hauek hartuko dira kontuan:

3.1) Talka sortzen bada nahitaezko irakasgai baten eta hautazko irakasgai baten artean, hautazko irakasgaiaren data aldatu beharko da.

3.2) Talka sortzen bada nahitaezko bi irakasgaien artean edo hautazko bi irakasgaien artean, honako arau hauek aplikatuko dira:

- Goragoko mailako irakasgaiko irakasleak aldatuko du data.

- Irakasgaiak maila berekoak badira, ikasle gutxien matrikulatuta dauden irakasgaiko irakasleak aldatuko du data.

- Irakasgaiak maila berekoak badira eta bietan ikasle kopuru bera badago matrikulaturik, zozketa egingo da.

Oharra:

Ikasketa bereko eta maila bereko irakasgaiak badira, esango dugu bi ebaluazio probaren arteko talka sortzen dela bataren hasiera ordutik bestearen hasiera ordura 24 ordu baino gutxiago badago. Ikasketa bereko eta maila desberdinetako irakasgaiak badira, esango dugu talka sortzen dela bataren hasieratik bestearen hasierara sei ordu baino gutxiago badago.

Hierarkia hau aplikatuko da: graduondoko mailak gradu etako mailak baino goragokoak dira; masterreko prestakuntza osagarrietako irakasgaiak masterreko gainerako irakasgaiak baino beheragokoak; eta maila zehaztugabeko irakasgaiak beren titulazioko azken mailako irakasgaitzat joko dira.